


Zeinu bereko partikulek
elkar
aldaratzen dute.



Elkarrekikotasuna adierazteko,
ELKAR izenordaina baliatzen dugu
euskaraz, oro har.



● Partikulak **elkarrengandik** urruntzen dira.

● Partikulak bata bestetik urruntzen dira.

✘ Partikulak urrundu egiten dira.

Erreferentzia-puntu jakin batetik urruntzen dira, eta ez nahitaez elkarren kontrako norazkoan.

- Partikula batek eta partikula horren antipartikulak **elkar** deuseztatzen dute, talka egiten dutenean.
- Partikulak antipartikula deuseztatzen du, eta antipartikulak partikula.
 - ✘ Partikula bat eta partikula horren antipartikula deuseztatu egiten dira talka egiten dutenean.

Beste zerbaitek deuseztatzen ditu partikula eta antipartikula.

ELKAR izenordaina

● Kasuan kasuko aditzak eskatzen duen atzizkia hartzen du:

- Bi molekulak **elkarrengana** hurbiltzen dira.
- Hiru aldeek eragina dute **elkarrengan**.
- Galaxiak hurbilago zeuden **elkarrengandik**.
- Partikulek **elkarri** eragiten diote.
- **Elkarren** ondoan eseri dira adiskideak.
- Izan zaitezte **elkarrentzat** on eta bihozbera.
- **Elkarrekiko** harremanak zaindu behar ditugu.

"Elkarrek" inoiz ez!!!


EHULKUren ahol.



ELKAR izenordaina

● NON, NONDIK, NORA... kasuetan, izen bizidunen atzizkiak hartzen ditu:

- Bi molekulak **elkarrengana** hurbiltzen dira.
- Hiru aldeek eragina dute **elkarrengan**.
- Galaxiak hurbilago zeuden **elkarrengandik**.



ELKAR izenordaina

- Okerrak dira gisa honetako esapideak:
 - Partikulek **elkar** eragiten diote.
 - **Elkar** bizi dira.
 - **Elkar** bazkaldu dute Agurtzanek eta Enekok.
 - Indarrak elkar anulatzen **dira**.
 - Elkar ezagutzen **dira**.



ELKAR izenordaina

● Hona hemen forma zuzenak:

- Partikulek **elkarri** eragiten diote.
- **Elkarrekin** bizi dira.
- **Elkarrekin** bazkaldu dute Agurtzanek eta Enekok.
- Indarrek **elkar** anulatzen dute.
- **Elkar** ezagutzen dute.



Aurkako zeinuko partikulek
elkar
erakartzen dute.

